

Global express

Gaur egungo mundua ikasgelan

Su etena: Armen negozioia



1. Zer dute komunean argazkiotako pertsonek?

2. Taldetan banaturik, hautatu hiru argazkietako bat. Irudikatu eta idatz ezazue argazkian ageri diren pertsonek historia.



2. Indarkeriaren kultura



Indarkeria hiru motakoa izan daiteke:

Zuzenekoa: pertsoneri kalte fisikoak edo psikologikoak eragiteko asmoz eginiko ekintzak dira.

Egiturazkoa: indarkeria mota hau sortzen da pertsonak ezin duenean bizimodu duina izan eta ezin duenean giza eskubideez erabat gozatu (pobrezia, gosea, hezkuntzarik ez, zapalketa politikoa, eta abar).

Kulturala: zuzeneko eta egiturazko indarkeria justifikatzeko balio duen indarkeria da (arrazakeria, matxismoa, fanatismoa, eta abar).

3. Begiratu komikia eta iruzkindu zure ikaskideekin. Ondoren, adieraz itzazu komikian aurkitu dituzun indarkeriazko egoerak.
4. Zure ustez, egoera horietakoren batek antzekotasunik al du bizitza errearekin? Argudiatu zure iritziak:
5. Bila itzazu komikian indarkeria motei dagozkien adibideak.
6. Aztertu herri esaera honen esanahia: “Bakea nahi baduzu, presta zaitetz gerrarako”.
7. Jende askok dio gure gizarteak “indarkeriaren kultura” murgildurik bizi direla. Egin ezazu gelakideekin batera “ideia zaparrada” esaera horren esanahiaz.

3. Mundu birtualak



Bideojokoek, filmek, bideoklipek, marrazki bizidunek fikziozko munduak asmatzen dituzte, gure eguneroko bizimodutik oso urrun daudenak. Beste alde batetik, komunikabideek kontatzen dizkigute munduan eta gure inguru hurbilean gertatzen diren gertakariak. Zein da indarkeriaren papera entretenimenduzko produktuetan eta komunikabideetan? Gonbidatzen zaitugu aurkitzera.


azterturiko esparrua:	bideojokoak	bideoklipak	TBko filmak	marrazki bizidunak	TBko albistek	OSOTARA
azterturiko lagina (kopurua)						
indarkeria ageri duten produktuen %						%-en batezbestekoa

8. Esparru bakoitzean lortutako datuak erabilia, atera ezazu azterturiko esparru guztietan ageri den indarkeriaren ehunekoaren batez bestekoa. Zertan da antzekoa bideojoko, bideoklip, film, marrazki bizidun eta albisteetan ageri den indarkeriaren batez bestekoa zure eguneroko bizitzarekin?

9. Zure ustez, entretenimendua eta albistek ekoizten dituztenak zergatik baliatzen dira indarkeriaz?

10. Gogoratu indarkeriaren hiru moten definizioa. Nolako indarkeria eragiten dute entretenimendu bideek eta TBko albistek pertsonengan?

4. Mundu erreala



© INTERMON OXFAM

Argazki zirriborotsua, mutilaren segurtasunagatik.

Paramilitarren jazarpenak harrapaturik...

“Paramilitarrak zirikatzen hasi zitzaizkigun, presio egiten, gerrilen gainean informazioa emateko. Hirira hornigaiak erostera joaten garenean, paramilitarrek leporatzen digute gerrilentzako erosten ditugula, urteak eta urteak pasatu baitira inguru honetan dabilzanetik. Guk ez dugu armarik eramaten. Guk gure alorrak eta soroak landu nahi ditugu, azienda gobernatu eta ibaitik eta oihanetik bizi, eta ez dugu deus gehiago nahi.

MARCOS, URABAKO LANDA ERKIDEGOA, KOLONBIA.

Ikasle ohi batek hamazazpi lagun hil ditu Alemaniako institutu batean.

'Pertsona ospetsua izan nahi dut', esana zion adiskide bati

EL PAÍS | Nazioartekoa – 2002-04-27

Burua estalita eta fusil eta pistola banarekin, 19 urteko gazte batek institutu bateko zuzendariordea, 12 irakasle, idazkari bat eta bi ikasle hil zituen atzo Erfurt izeneko hirian, Alemaniako ekialdean, eta polizia bat ere bai. Ez dute gaztearen izena eman.

Institutu horretatik kanporatu berria zuten eta egunotan unibertsitatean sartzeko azterketak egiten ari ziren. Gazteak mendekua hartzea erabaki zuen. Azkenean, bere buruaz beste egin zuen, poliziak esan duenez. 'Pertsona ospetsua izan nahi dut, denek jakitea ni nor naizen' esana zuen behin bbaino gehiagotan, ikaskide ohi baten esanetan. (...)

Bart gauera arte, poliziak ez zekien gazteak nola eskuratu zituen armak: tiro azkarreko Pumpgun fusil bat eta eskuko arma bat, zabaldu diren lehen informazioen arabera. Alemanian, 2001ean, agintariek 7,2 milioi suzko arma inskribaturik zituzten, 2,3 milioi pertsonen eskuetan zeudenak, gehienak ehiztariak. Era berean, badira legez kanpoko armak, baina ezin jakin zenbat diren.

CIRO KRAUTHAUSEN – BERLIN

11. Irakurri testigantzak eta azaldu nor diren biktimak kasu bakoitzean.

12. Behin testigantza horiek irakurrita, deskribatuko dituzu indarkeriak pertsonengan eta gizarteetan dituen ondorioetako batzuk?

13. Zure ustez, zein da armek duten papera zuzeneko indarkeriaren agerpenean?

5. Nor ateratzen da irabazle indarkeria armatuarekin?



Egunero, milioika gizon, emakume eta haur indarkeria armatuaren presiopean bizi dira. Minuturo, pertsona horietako bat gatazka armatu baten biktima bihurtzen da edota beste pertsona batzuek edo banda armatuek pertsona bat hiltzen dute Hegoko edo Iparreko hiri batean.

Armek pertsonengan eta erkidegoetan oinazea, sufrimendua eta kaltea sortzen dute. Hala ere, armen salerosketaren bidez, diru asko irabazten da, baina ez da batere negozio gardena. Erosleek eta saltzaileek ez dute inolako xehetasunik ematen merkataritza horri buruz.



14. Behera kargatu "5. jardueraren baliabidea: erosleen eta saltzaileen mapa eta azter ezazu.

15. Zeintzuk dira arma gehien esportatzen dituzten herrialdeak?

16. Zeintzuk dira arma gehien inportatzen dituzten lurraldeak?

17. Alderatu mapa hau gatazka armatuen maparekin (baliabidea: 4.1 jarduera) Zer ondorio atera duzu?

18. Zure ustez, nork irabazten du diru asko gatazka armatuekin eta gerrekin? Zergatik?

EGIA DA, GUK ARMAK FABRIKATZEN DITUĞULA.



EGIA DA GUK SALTZEN DITUĞULA.



BAINA HAI EK HILTZEN DUTE ELKAR!



6. Armarik etxean?

14. Etorkizunean gaude eta familiarekin batera hiri handi batean bizi zara. Han, komunikabideak etengabe mintzatzen dira hiri-indarkeriaz. Zu bezala, zure auzokideak kezkatzen hasten dira beren familien segurtasunaz. Gaur batzarra eginen duzue neurriak hartzeko... baina bozketa ez da batere erraza izanen. Bete jarraibideak jokoari hasiera emateko.

Eman dezagun 2025 urtean gaudela. Beraz, zuk..... urte dituzu. Ikasketak bukaturik, lana hiri handi batean lortu zenuen, zuk aukeratutako lanbidean, gainera. Han zure bikotekidea ezagutu, eta gero harekin bizitzea erabaki zenuen. Gaur egun, zazpi urteko neskatu eta hiru urteko mutiko baten aita/ama zorionsua zara.

Oso pozik zaude zure lanaz eta familiaz, baina gai batek kezkatzen zaitu eta ezin duzu lorik egin. Telebistak eta egunkariak diote azken urtebetean indarkeria izugarri ugaltu dela zure hirian. Albistegiak etengabe mintzatzen dira hirian gertaturiko hilketak, bortxaketa, lapurketa eta erasoez. Kanean, jendearen aho mihitan gai hau dabil: ez dago segurtasunik eta, itxura guztien arabera, hiria ez da jadanik toki egokia bizitzeko. Baina ez da batere erraza leku lasaia batera bizitzera joatea, gauza nekeza baita lana aurkitzea.

Pertsona askok ekitea erabaki dute eta segurtasun ezaren aurkako neurriak hartzen ari dira. Bitartean, armen salmentak handitu eta suzko armak kontsumo-gai "arrunta" bihurtu dira. Zure adiskide batzuek arma erosteaz gain, ikastaroak ere egiten ari dira nola erabili ikasteko. Pertsona horiek diote ez dela nahikoa poliziaren lana eta familiak babestu beharra dagoela.

Zure eraikinean, auzokideek erabaki dute taldean ekin eta antolatzea, erasoak etxeraino iritsi daitezkeelakoan. Auzokide komunitateko presidentek proposatu du familia bakoitzak etxean arma bat edukitzea, beharrean bakoitzak bere burua defenda dezan edota auzokideei laguntzeko.

Gaur arratsaldean, auzokideen batzarra egin eta presidentearen proposamenari buruzko bozketa eginen da. Iritziak oso banatuak daude armak erostearen alde eta kontra dauden familien artean. Botoa eman baino lehen, saiatuko zara zurea ez bezalako iritzia duten pertsonak konbentzitzen.

Zure boroa hauxe izanen da:

Arma erostearen aldekoa

Arma erostearen kontrakoa

8. Bake bidean aurrera

INTERMÓN OXFAM eta Amnistia Internacional taldeak bake-kulturaren alde lan egiten hasi dira, armen merkataritza kontrolatzeko nazioarteko kanpainaren baitan.

Kanpainaren helburua da armek eragiten duten giza kostea murriztea. Horretarako hauxe lortu behar da:

- Arma konbentzionalen merkataritza arautzea, giza eskubideen urraketak galarazteko.
- Armak eskuratzeko kontrola indarkeria armatuak ukitutako erkidegoetan.

(Más información en: www.armsbajocontrol.org)



Mundua kinka larrian dago. Badira alde batetik bestera doazen milioika arma. Armak munduko edozein tokitan daude. Milioika gizon-emakume ondorioak jasaten ari dira.

Bitartean, hamaika gauzak ematen dio hatsa indarkeriaren kulturari: ekonomia bidegabeak, pobrezia, injustiziak, aukera faltak, genero desberdintasunak, beste kultura batzuei buruzko ezjakintasunak, giza eskubideen zampaketak, elkarrizketarik ezak...

“Etsaiak, behintzat, entzun nahi izanen balu, gauza miragarria litzateke, tiroak bukatu eta batzuk eta bestek elkarri entzun ahal izanen genion, hitz eginen genuke eta saiatu armarik ez erabiltzen. Gustatuko litzaidake indarkeria honi guztioni azkena eman ahal izatea eta nire herrialdea garatzen laguntzea.”

NESKATO SOLDADUA. FILIPINAK, 2001. “ARMAK KONTROLPEAN” KANPAINAREN TXOSTENA.

Baina bake-kulturaren eraikuntzan lan egitea pertsona guztion zeregina da. Eta zuk, nola parte hartzen duzu?

23. Zer egin dezakegu?

- Bakoitzak egin dezakeguna:

- Taldeek egin dezaketena:

Idea batzuk:

- Bat egin “Arma kontrolpean” kanpainaren ekintzekin: (www.armsbajocontrol.org).
- Indarkeriaren kulturari eta bake-kulturari buruzko erakusketa egin daiteke eta institutuan aurkeztu: marrazkiak, olerkiak, abestiak, argazkiak eta abar.
- “Bakearen aldeko eguna” antola daiteke zure institutuan.
- Gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko informazioa bila daiteke.
- Kritikoki aztertu eta aukeratu zure informazio eta entretenimendu bideak.
- Gerren kontrako eta bakearen aldeko ekintzak sustatu.
- Informazioa liburutegian edo interneten bilatu indarkeria ezaz eta bake-kulturaz.